

Elkarteak, negozio mota batek funtzionatzeko behar dituen hornitzaile eta bazkideak osatzen dute. Gure enpresa, 3. sektorekoa da, besteak beste, eskaintzen duguna zerbitzu bat delako. Nahiz eta horren barne, apunteak ondasun gisa aintzakotzat har ditzakegun.

APP hau sortzerako garaian hainbat dira hartu beharrekoak ditugun irizpideak; noren laguntzaren bitartez sortua izango den besteak beste. Aritu batengana joko dugu, hark hobeki lagunduko gaituelakoaren irudimenarekin. Guk pausoak eta APP-ak izan beharreko ezaugarriak adieraziko dizkiogu, eta hark, aritua, aplikazio hau behar bezain legalki eta hoberean sortuko digu. Teknologia arloan oso jaioak ez garenez, egokiena ikusten dugu jokabide hau.

Behin APP-a sortua dagoenean, apunteak nondik lortuko ditugun erabakitzeke ordua iritsiko litzateke. Guk egokiena zera ikusten dugu, iada eskeintzen ari den apunteen kurtso hura gaindituta duten ikasleak izango direla guri arite hauek eskeiniko dizkigunak. Noski, ordainetan diru bat eskainiko zaie. Irakasle aritua ere izango ditugu lagungarri online eskainiko diren klaseak emateko. Hauei ere, alde aurretik aurrehitzartua egongo den diru kantitate bat emango zaie trukean. Arite hauek bezeroen eskura izango ditugu salgai.

Bezero hauek, akademikoki laguntza gehigarriaren bat behar dutenak, nota bikainaren bila dabiltzanak edo besterik gabe, noizbehinka dudaren bat argitu nahi dutenak izango dira. Gaur egun, gero eta handiagoa da batxilergo eta hautapoben emaitzei ematen zaien garrantzia, eta hortaz, badakigu ikasle askok nota altua behar duela nahi bezain moduan ikas dezan, bai eta nahi duen unibertsitate edo zentruan ikasteko. Beraz, normalean jasoko dituzten klaseez gain, lagungarria ikusten dugu APP hau, modu eroso batean, laguntza extra bat jaso dezaten.

APP hau deskargatzeko bi baliabide egongo dira, bi plataforma desberdin erabiliz. Android sistemadun mugikorrek dakarren "Play Store" plataforma eta iOS sistema daukan mugikorrek dakarrena, "APP store".

Besteak beste, ikasle bakoitzak izango du norbere materiala erabili eta zaintzeko eginkizuna. Hau da, bertan sartzen diren eskolako materialak; koadernoak, arkatzak, bolalumak etab.